


KOMIKIGINTZA. Mintxo, Kipe, Koxme, Triski eta Bi Luma, Punki eta beste hainbat pertsonaia ezagutarazi ditu



Ipurbeltz-eko pertsonaiak, elkarrekin bilduta, Ereinek aldizkariaren 25. urteurrena dela-eta kaleratu duen liburuan.

EKIMEN BERRIAK

Webgunea eta liburua plazan, lehiaketa abian

Hiru ekimen berri jarri ditu abian *Ipurbeltz*-ek azkenaldian, 25. urteurrenarekin bat eginez: webgunea, 25. urteurreneko liburua eta gaztetxoentzako komiki lehiaketa.

«Web orria beste komunikabide bat da, izaera propioa duena», dio San Sebastianek. «Jokoak ditu, interaktibo da... Aurrera begira indartzeko asmoa dugu». Helbidea www.ipurbeltz.com da.

Liburua «*Ipurbeltz*-i eta *Ipurbeltz*-eko marrazkilariei egindako omenaldia da». Aldizkariari buruzko informazioarekin eta Jexux Mari Mujika, Julen Lizundia eta Edorta Kortadiren artikulu banarekin batera, aldizkarian parte hartu duten 30 marrazkilariri egindako elkarriketak biltzen ditu: Antton Olariaga, Mikel Valverde, Iñaki Martiarena *Mattin*, Jon Zabaleta, Juan Luis Landa, Jesus Lucas, J. Angel Lope-tegi, Antton Dueso, Gaston Majarenas, Marko, Alvaro Matxinbarrena...

Komiki sariketa 14 urte bitarteko egile gazteentzako dago antolatua. Aurten jarri da abian, baina ondorengo urteetan ere antolatzen jarraitzeko asmoa dute.

JON SAN SEBASTIAN

'Ipurbeltz'-eko zuzendaria

«Euskal Herrian komikilari asko dago, eta maila handikoak, marrazki nahiz ideia aberatsekoak»

ANTTON OLARIAGA

Komikigilea

«Euskarazko komikiaren beharra zegoen, eta 'Ipurbeltz'-ek plataforma bat eskaini zigun orduan»

tianek. «Euskal Herrian komikilari asko dago, eta maila handikoak, marrazkilarionak eta ideia aldetik ere aberatsak. Aurrekontu handiagoga izanez gero, lan gehiago sartuko genuke, gustura». Euskal komikigile askok kanpoan egin behar izaten du lan, «hemen ez dagoelako komikia kontsumitzeko ohiturarik».

'Ipurbeltz'-ek 25 urte bete ditu

Euskal komikilari ugariren lanak argitaratu ditu aldizkariak Ereinek 1977an sortu zuenetik

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Ipurbeltz, Mintxo, Kipe, Triski eta Bi Luma, Koxme, Naiara, Ramuntxo Ganbelutxo, Pronxio eta Martxelino, Garbiñe eta Xabi, Harkaitz, Josemari Nekazari, Errupin eta Jokin, Txintxo eta Demontxo, Ametz eta Mustroa, Bizaruri, Ian Battit, Punki, Kattalingorri... Euskal komikigintzako pertsonaia ugariren habia izan da azken 25 urteotan, 1977az geroztik, Erein argitaletxeak plazaratutako *Ipurbeltz* aldizkaria. Eta halaxe izaten jarraitzeko asmo sendoa du.

«Euskararen normalizazioaren bidean beste urrats bat eman nahirik sortu zen *Ipurbeltz*», egungo zuzendariak, Jon San Sebastianek dienez. «Erein argitaletxea sortu berria zen orduan, eta argitaletxearen funtsezko asmo berarekin sortu zen *Ipurbeltz* ere: euskarazko liburuak eta argitalpenak eskaintzea. *Ipurbeltz*-en bidez adin jakin bateko irakurleengana iritsi nahi zen, haur eta gaztetxoengana, pentsatuz komikia horretarako oso bide egokia zela».

«Euskarazko komikiaren beharra ikusten genuen eta *Ipurbeltz*-ek plataforma moduko bat eskaini zigun bertan gure lanak argitaratzeko», oroitu du Antton Olariaga marrazkilaria eta komikigile ezagunak, *Ipurbeltz*-en lehen zenbakiko azalaren egileak. «Lanak ar-



Kipe da *Ipurbeltz*-ek ezagutzera eman dituen personaietako bat. Behean, beste bat ageri da: Punki.

gitaratuta ikustea animo handia zen guretzat orduan».

«Marrazkilariak ez ezik, gidoilariak ere elkartu ziren aldizkariaren inguruan», gaineratu du Olariagak. «Taldea lan moduko zerbait sortzen hasi zen, azpiegitura bat zegoen, maiztasun jakineko argitalpen bat... Europarekin konparatuz, nahiko atzeratuta geunden komiki kulturalari dagokionean. *Ipur-*

beltz bezalako pausoak ematea oso pozgarria zen garai hartan».

Gizartearekin batera aldatzen

1977tik gaur arte etenik gabe izan da *Ipurbeltz* harpidedunen etxeetan eta hainbat liburu dendatan. Zaila zaio San Sebastiani aldizkariaren 25 urteko historian aro ezberdinak bereiztea. «Garaitik eta inguruko gizartetik edan du

beti aldizkariak, baita kanpotik etorritako gauzetatik ere. Funtsen xede bera izan du beti, gaztetxoarentzat erakargarri izan eta gaztetxoa distraitu. Egin diren aldaketak garaiaren araberakoak izan dira, garai berrietara egokitzeko eginak».

Azken urteetako zenbakiek erakusten duten aldaketa nagusia erreportajeen agerpena da. Nahiz eta orain ere komikigintza izan aldizkariaren funts nagusia, *Egon hadi!* eta *Ba al zenekien...* atalek beste era bateko lanetarako aukera eskaintzen dute. «Gaztetxoentzat interesgarri diren gaiak biltzen ditugu, hemengoak nahiz kanpokoak».

Ipurbeltz «ez da pedagogikoa, ez da zuzenean didaktikoa», San Sebastianen ustez. «Argi dago ikasteko ere balio diela gaztetxeoi, eta ezin dugula edozer gauza atera, baina *Ipurbeltz* ez da testuliburu bat, distraitzeko egin dago, eta alde horretatik askatasun handiagoz jokatzeko dugu».

Aldizkarirako komikigile faltarik ez dagoela dio San Sebas-

